

# PRIOektuaren Deskribapena

Gu Aimar Tome, Nahia Hurtado eta Aimar Arranz gara eta Startinnova proiektuan parte hartuko dugu gure metodo izugarri bat sortzeko, txirrindularien egunerokotasunerako.

Gure amorruetan pentsatuz eta gure erosotasunari begiratu bururatu zitzagun, beti bizikleta kaskoaren erabilera hobetzeko helburuarekin. Gainera, beste jende batzuei lan gutxiago ematen baitiezue eta norberarentzako askoz ere erosoagoa baita. Honela sortu zen gure sensoreko kasko airbag-aren ideia.

Gaur egun, kirola gero eta nabarmenagoa da eta horietako bat txirrindularitza da, arriskutsua izan daitekeena. Hau egiten dutenek arazo larria izaten dute segurtasun-kaskoarekin, izan ere, deserosoa iruditzen zaie kaskoa gainean eramatea kirola egiten duten bitartean, eta are gehiago bero handia egiten duenean. Kirol honetan jarduteko kaskoa ezinbestekoa dela garbi dago eta ezin dugu onartu jendeak soinean ez eramatea, horretarako erabiltzaileentzat erosoagoa den sistema bat sortu nahi dugu.

Sistema honek "Airflip" izena du eta erorketarako sensore bat izango du eta arriskua dagoenean airbag-a aterako da pertsonaren buru guztia estaliz. Gainera, airbag honek, aurpegirako zulo moduko barnehuts bat du, arnasa normal hartu ahal izateko. Airbag-a behin erabiltzen bada, berriro ere kokatu daiteke modu erraz batean, botoi bati emanda.



Gainera, gizarte honetan gehienek kanpo itxura hoberena nahi dute eta horregatik ere gorroto dute kaskoa eta kexatu egiten dira. Hori dela eta, gure sistemarekin kexa horiek ere sahiestu nahi ditugu, pertson horiek gure kasko mota eramanez.

